

DIRU-SARRERAK

Gure enpresa, Secureband S.L. aurrera eramateko, diru iturriak beharko ditugu. Gure produktuaren erakargarritasunaren arabera, diru gehiago lortzeko aukera izango dugu. Irabazi iturriak hainbat lekutatik aterako ditugu.

Hasteko, gure diru sarrerarik handiena gure produktua, larrialdietarako eskumuturra saltzeagatik lortuko dugu. Gero eta bezero gehiago izanda, salmenta gehiago lortuko ditugu, eta produktu interesgarria bada, bezero gehiago erakarriko ditugu. Gainera, eskumuturra momentu bakarrean ordaintzeko gai ez direnentzako, ordainketa-errepikariaren aukera izango dute, hau da, hilabetero kantitate bat ordaintzeko aukera.

Azkenik, publizitatearen bidez, diru sarrerak lortzea dugu helburu. Esate baterako, Sportlandia edo honelako denda apalen bat gure eskumuturrean publizitatea jartzeagatik diru kantitate jakin bat ordainduko digute, eta aldi berean haiek ospetsuagoak bihurtuko dira.

Points scored



